

LAMIÑEK

Anchiñe, errekondo-ko echiek eta eche errotak lamiñez inguraute egoten ei ziren.

Euren egiñez iñorbe ezin bizi, ain ziren goigarrishek, charrak eta zikiñek lamiñek. Eurek gerriz-goittishe andrazco ederrak lakoshie eben eta gerriz betishe arrain buztten bakue.

Bauskain baserri echien bein bizi ziren gizon alargun bat bere iru alabagaz. Eche onetan be lamiñek ugeri ebisen eta suburuco laratzien bera jatsitte batien zapo aundishe sartu, egosten euen lapi-kuai, bestien esnie egosten euen ontzire bota ta abar. Olaco gauzak ikusi ezkero iñok-pe ezin jan eta eurek bai ta ori egitten eben eurek nai eben guztishen eta eziñ ezer egiñ, bestela egiñ ezkero etorri pillo aundishe itto ariñ.

Beiñ iru alabetatik Joshepa izena ebanak laster kéndu eutsen bateri aretako ibilli-aldishe.

Aparishe ipinten eguela, au da talu ta esnje suburuco laratsien egosten ipiñi, lasterruen ona nun jaisten dan lamiñie zapo aundi bat eskuen dabela ta dirautse aparishe prestetan euen Joshepari: «Selan yatsu izena?» — «ni neu», ostera be: «Selan yatsu izena?» — «ni neu».

Eta orduen lamiñiek eskuen zapo aundishe, egosten euken esnetara botaten dau, baitte Joshepak be artzen dau burduntziske ta... **rras...** sarten deutse lamiñiari gerri gerrittik, eta lamiñie asten da ayeneka ta uluaka ikerik-pe ezin dabela egin ta datozen gero Oshillain-aldeko ta Axmendi aldeko lamiñe guztiak lamiñe aren ayenetara ta uluetara ta ittanduten deutse d'anak miñ artute euen lamiñiari ia nork egin eutson eta erantzun eban betik «nineuk». Bes-

tieki : — «orkonpon euk egin don euk eukiñ». Osterabe len baño gogorrago «nineuk», ba bestiek len baño gogorrago, «euk egin baden eukiñ euk». — Orduen danok alde in eben, a-lamiñe minberatue an ichi tte.

LAPRAMENDI ATSUE

Markiñen Artibaiko auzunean atso bat zar samarra bizi eizan, berau sorgiñe esaten ebenez eta izena eban Lapramendi atsue.

Artibai-ko auzunean **Chabiñ-en** echien senar emazte bi bizi ziren eta emaztie gorulari ederren bat zan eta bēñ baño sarrishago apalostien gizona ohera jun da gero be geratzen zan goruetan gogor. Gau gustishetan suburuco laratsien agertzen yakon katu zuri audi bat eta «sh-ps-sh-ps...» esaten eutsenien uliek arro-arro egin-dde eta puske eltsera egingo baleu lez, yartzen yakon eta gañera bérba egiñ eta goruetan ichi ez.

Emaztiék esaten deutse gizonari yasoten yakona ta gizona urrengo gabien bera goruetan geratu zan, emaztie oyera bialdu te gero.

Ostera be nun agertzen dan esandeko katue laratsien bera ta ekin deutse barriketan : — «biserrak eta goruetan?» — gizonak dirautso : — «katue ta barriketan?» — Gizonak suteko illintishe artute yo dau katu ori lepazurrien : suburuco laratsien gora chimistie lez iges egin eban. Bisharamon goshien nun entzuten dan Artibaico ausunean Lapramendi atsue eleishecuek erain de gerrishe ausitte charto dauela.

